B) Andra Mariko Lur Urbanizaezina, hiri-lurraren ekialdean kokaturiko, zehazki, hiri-lurraren limitearen eta 190 sestra-kurbaren bitartean dagoen eremua, AA-9tik C-3rarte.

Bigarrena—Tramitatzen dauden lizentzi baimenen prozeduren etena agindu, eta baita, Hirigintza Plangintzari buruzko Araudiko 121. artikuluan xedatzen denez, etendura akordioa hartu baino arinago aurkeztutako lizentzia-eskatzaileei jakinarazi aipatutako erabakia.

Udal erabaki honen aurka, behin-betikoa izanik administrazio bidean, iragarki hau argitaratzen denetik hasita zenbatu beharriko bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, auzia dagokion Administrazioarekiko Auzitarako Bilboko Salari. Hala eta guztiz, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsora jo baino lehen, birjarpenezko errekurtsoa ere jarri ahal izango da erabakia hartu duen organoari, iragarki hau argitaratzen denetik hasita zenbatu beharreko hilabeteko epean. Dena dela, hori ez da oztopoa izango zeure eskubide-interesak defendatzeko bidezkoesten dituzun errekurtsoak egin ditzazun.

Morgan, 2006ko urtarrilaren 25ean.—Alkatea, Iñaki Lejarraga Uribe

(II-567)

B) Zona del suelo no urbanizable de Andra Mari, emplazada al este del Suelo Urbano, concretamente, la zona comprendida entre el Límite del Suelo Urbano y la Curva de Nivel 190, desde el AA-9 hasta el C-3.

Segundo.—Ordenar la interrupción de los procedimientos de otorgamiento de licencias que estuvieran en tramitación y la notificación del acuerdo de suspensión a quienes tuvieran presentadas solicitudes de licencia con anterioridad a la fecha de su adopción, conforme previene el artículo 121 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.

Contra la presente resolución, que es definitiva en vía administrativa, se podrá interponer en el plazo de dos meses, contados desde la publicación de este anuncio, recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao que corresponda, no obstante lo cual se podrá interponer con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo, recurso de reposición, ante el mismo órgano administrativo que lo dictó, en el plazo de un mes, que se contará desde el día de la publicación de este anuncio, todo ello sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que se estimare oportuno interponer para la mejor defensa de los derechos e intereses.

En Morga, a 25 de enero de 2006.—El Alcalde, Iñaki Lejarraga Uribe

(II-567)

## Ugao-Miraballesko Udala

IRAGARKIA

Borja Orbegozo Guzmán jaunak, «Ztira Alimentación, S.L.» entrepresaren ordez eta izenean, «supermerkatua» jarduera egiteko baimena eskatu du herri honetako Ugaoko Dorrea kaleko 19. zenbakian.

Otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 58. artikuluarekin bat etorriz, eskaera hori 15 egunez jartzen da jendaurrean, interesatuek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Ugao-Miraballesen, 2006ko urtarrilaren 31n.—Alkatea

(II-572)

## Ayuntamiento de Ugao-Miraballes

ANUNCIO

Don Borja Orbegozo Guzmán, en nombre y representación de «Ztira Alimentación, S.L.», solicita licencia para la actividad de «supermercado», en el local sito en calle Torre de Ugao, número 19, de este municipio.

En cumplimiento del artículo 58 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, se abre un período de información de 15 días, para que los interesados puedan hacer las reclamaciones que estimaren oportunas dirigidas a la Alcaldía de este Ayuntamiento.

En Ugao-Miraballes, a 31 de enero de 2006.—El Alcalde

(II-572)

## Leioako Udala

IRAGARKIA

Osoko bilkurak 06-01-26 eguneko batzarrean hartu zuen 2. erabakiaren bitartez, behin betiko onetsi zen Viviendas de Vizcaya S.A.k HAPOko 43. arloko (Pinosolo) G-1, G-2 eta G-3 etxe-multzoen antolamenduari buruz aurkeztutako Xehekapen Azterlana.

Hala, BAOan argitaratuko da, ekainaren 23ko 2.159/1978 EDk onetsitako Hirigintza Plangintzari buruzko Araudiak 140. artikuluan ezarri duena bete dadin.

Erabaki horrek bukaera ematen dio administrazio bideari baina bere aurka administrazioarekiko auzibide errekurtsoa jarri ahal izango da Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusian behar den administrazioarekiko auzibideetarako aretoan, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatu eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko lerrokadan aipatu den administrazioarekiko auzibide errekurtsoa jarri aurretik, birjarpenezko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da orain jakinarazten den administrazioaren egintza eman zuen organoan, hilabeteko epean iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean jakinarazten den egunaren biharamunetik zenbatuta. Birjarpenezko errekurtso horri administrazio isiltasunez gaitziritzi zaiola ulertuko da, baldin eta errekurt-

## Ayuntamiento de Leioa

ANUNCIO

Mediante acuerdo plenario número 2, adoptado en la sesión celebrada el día 26-1-06, se ha procedido a la aprobación definitiva del Estudio de Detalle presentado por Viviendas de Vizcaya S.A., relativo a los bloques G-1, G-2 y G-3 del Area 43 del P.G.O.U.-Pinosolo.

Lo que se publica en el «Boletín Oficial de Bizkaia» a efectos de cumplimentar lo estipulado en el artículo 140 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico aprobado por R.D. 2159/1978, de 23 de junio.

Contra este acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, se podrá interponer en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente de la publicación del presente anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia», recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo que corresponda del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado en el párrafo anterior, podrá interponerse recurso de reposición ante el mismo órgano que dictó el acto administrativo que ahora se notifica, y esto en el plazo de un mes, que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la publicación del presente anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia» Tal recurso de reposición se entenderá desestimado por silencio admi-

soa jarri eta hilabete igaro ondoren berorri buruzko ebazpenik jakinarazten ez bada. Kasu horretan, jakinarazpen honen lehenengo lerrokadan aipatu den administrazioarekiko auzibide errekurtso hori jartzeko epealdia sei hilekoa izango da, administrazio isiltasunaren bidezko gaitzirizpena gertatzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Errekurtso araubide horren oinarri juridikoak Administrazioarekiko Auzibide Jurisdikzioa araupetzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan jasorik daude; Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldarazi duen urtarrilaren 13ko 4/1999 legearen 109.c), 116 eta 117. artikuluetan eta 43.2. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52.1. artikuluan apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketan xedaturik dagoenarekin bat etorriz.

Aurretik adierazi denari kalterik egin gabe, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtso jarri ahal izango da.

Leioan, 2006ko urtarrilaren 27an.—Alkatea, Karmelo Sainz de la Maza Arrola

(II-588)

•

IRAGARKIA

Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretuaren 93. artikuluan ezarritakoa betetzeko, honako kontratuaren luzapenaren adjudikazioa argitaratu da.

*Adjudikazioa:* Osoko bilkurak 06-01-26 batzarrean hartutako 3. erabakia

*Enpresa:* Ute Leioandi

*Kontzeptua:* Mendibile parkea garbitzea

*Zenbatekoa (BEZ Barne):* 61.799,37 €/urtean

Leioan, 2006ko urtarrilaren 27an.—Alkatea, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola

(II-587)

•

## Zaldibarko Udala

EDIKTUA

Nik, Zaldibar Elizateko Udaleko Alkate-Udalburuak, honako hau jakinarazten dut:

Decoletajes Blanco, S.A., enpresak Ibur-Errekako industri poligonoko lokal batean burdinazko barrak hartuta, automoziorako piezak mekanizatzeko jarduera berriro sailkatzeko baimena eskatu diola Udalari.

Jendea jakitun ipini gura dugu jarduera «sailkatuak» arautzen dituen Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren 58.2 artikuluak agintzen duenari jarraituz, jarduerak kaltea ekarriko diolakoan dagoenak dagokion alegazioa aurkezteko modua izan dezan. Alegazioa udaletxean aurkeztu behar da, idatziz, ediktu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasi eta hamabost eguneko epean.

Zaldibarren, 2006ko urtarrilaren 30ean.—Alkateak, Igor Barrenetxea-Arando

(II-591)

nistrativo si, en el transcurso de un mes desde la fecha de su interposición, no se le notifica la resolución del mismo. En este último caso, el plazo para interponer el recurso contencioso-administrativo mencionado en el párrafo primero de esta notificación será de seis meses, contándose a partir del día siguiente al que se produjo la desestimación por silencio administrativo.

Los fundamentos jurídicos de este régimen de recursos se encuentran en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con los artículos 109.c), 116, 117 y artículo 43.2 de la Ley 4/1999, de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como en el artículo 52.1 de la ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, en la redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril.

Sin perjuicio de cuanto se señala anteriormente, podrá interponerse cualquier otro recurso que se estime procedente.

En Leioa, a 27 de enero de 2006.—El Alcalde, Karmelo Sainz de la Maza Arrola

(II-588)

•

ANUNCIO

A efectos de cumplimentar lo establecido en el artículo 93 del Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, se publica la adjudicación de la siguiente ampliación de contrato:

*Adjudicación:* Acuerdo plenario número 3 adoptado en sesión de 26-1-06.

*Empresa:* Ute Leioandi.

*Concepto:* Limpieza Parque Mendibile.

*Importe (I.V.A. Incluido):* 61.799,37 €/anuales.

En Leioa, a 27 de enero de 2006.—El Alcalde, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola

(II-587)

•

## Ayuntamiento de Zaldibar

EDICTO

El Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de la anteiglesia de Zaldibar, hace saber:

Que por Decoletajes Blanco, S.A., se solicita licencia municipal para reclasificar una actividad de mecanizado de piezas para automoción a partir de barras de hierro en un local situado en el polígono industrial de Ibur-Erreka.

Lo que en cumplimiento del artículo 58.2 de la Ley 3/98, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, por el que se regulan las actividades «clasificadas» se hace público, para que quienes pudieran resultar afectados de algún modo, por la mencionada actividad que se pretende instalar, puedan formular ante este Ayuntamiento, por escrito, las alegaciones que se consideren oportunas en el plazo de 15 días a partir de la publicación del presente anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Zaldibar, a 30 de enero de 2006.—El Alcalde, Igor Barrenetxea-Arando

(II-591)